

B,Dj.1

BR. 1965-XI-24

Agur bikote:

Jaso dut zuen txostena. Ez dut ulertzen nerea nola iritsi zitzaizuen hain berandu. Nik aspaldidanik bidali nuen.

Zer berri?

Ahmed'entzako papera egiña da. Non nahi duzute ematea: hor ala hemen? Hemen dago. Erantzun, Belgikarra da.

Txino txino-zaleekin egon naiz hemen. Ez dakit beren "Euzkadi Roja" ikusi ote duzuten: osoki abertzale, "carrillisten" errejionalismoa hitz hauetxekin maixeatzen dute! Gurekin egon nahi dute, eta hau eta bestea. Laguntza izango genuela, ta abar. Igandean Agustin eta gaiñerakoekin egon nintzanean (han, beraz), hortaz hitzean nien. Geroz ez da berririk.

Horko jendea ezagutzen dutela-ta, bi izen eman dizkidate: Angola'ko MPLA'ko Armeida deritzana; eta Guinea'ko Duarte. Esan zidatenez ez duzute koskarik batera izango berengaino joateko. Hauek laguntza haundia eman bide dezakete hor. Aurkeztu zaitezte "Patrizio'ren partez". Zuen zai daude, abisatuak baitaude.

Euzkadi'ko berri ba dukezute. Ez Zutik eta ez Zutik B ez ditut aspaldi hontan ikusi. Paris'koa aste hontan aterako omen da.

Patxi Noblia arrestatu egin dute, eta gogorki jo. Gero askatu egin dute, "indeseable" bere igarobidean jarriaz. Ba zenekiten?

Zer berri horko aldean?

Jeronimo Urtarrilla aldean hasiko bide da lanean Paris'en. Gaioa egin du egun hauetan, eta hori uste du.

Migel Iparraldean dago, bere emaztearekin. Oso sozialista omen dago.

Pako hemendik pasa zan, eta neuk eramane nuen Alemani'ra.

E.G.koek berriz ere hautsi bide dute Alderdi'koekin.

Radio Euzkadi ari dala dirudi.

Besterik gabe gaurkoz, besarkada bana eta emazteei goraintzi.

Jean

